

Tolareetako lanen hasiera, ospakizun

Kronika - Erredakzioa 2019-09-21 02:00



Txotx garaiaren hasiera bakarrik ez, sagarra biltzen hasteko garaia ere oso garrantzitsua da, Astigarragako sagardotegietan. Eta azkeneko urte luzetan bezala, ospakizun bilakatuko dute, datorren astean. Sagar Uzta Jaiaren 19garren edizioa egingo dute, ostegunetik igandera.



Ohiko pintxopotearekin hasiko dute ostegunean, sagarraren eratorriekin egindako pintxoak izango baitira, herriko tabernetan. Larunbatean helduko diote berriro, Sagar Bira mendi bueltarekin, Santiomendiko Sagardo Bidean zehar. Horretarako izena eman behar da, eta baita igandean izango diren beste hiru ekintzatarako ere: Argazki Rally Digitala, sagar mermelada tailerra, eta muztioaren elaborazioa. Sagarraren Jaiaren barruan egingo dituzte horiek, Foru Plazan.

Hori baino lehen, Ergobiko plazan izango da zita garrantzitsua, larunbatean: Euskal Herriko Sagardo Txapelketa Herrikoiairen finala jokatuko da, 12 sagardo onenen artean.



IRAILAK 26, osteguna

19:00-21:00, Pintxopotea, Astigarragako tabernetan. Sagarraren eratorriekin egindako pintxoak eskainiko dira.

IRAILAK 28, larunbata

09:30, Sagar Bira: Santiomendiko Sagardo Bidean zehar mendi buelta, familian*.

20:00, Euskal Herriko V. Sagardo Txapelketa Herrikoiairen finala, Ergobin.

IRAILAK 29, igandea

Sagarraren Jaia, Foru Plazan

09:30, Txirrisklako txistularien diana.

10:30-12:00, XII. Sagar Uzta Argazki Rally Digitalan izenematea, plazan*.

11:00-14:00, Sagarraren azoka: sagar mermelada tailerra*; sagarren erakusketa, dastaketa eta salmenta; sagardo eta muztio dastaketa; saski, txertaketa eta abarren erakustaldiak; herriko baserritarren produktuen salmenta; eta

trikitilariak herrian zehar.

11:00, Muztioaren elaborazioa: sagar biltzea, jotzea, eta zanpatzea, bertaratutako familien laguntzarekin*.

12:30, Sagar dantza eta kirikoketa.

13:00, Txalaparta, eta 2019 uztako lehen muztioaren topa herrikoia.

14:30, Herri bazkaria.

16:30, Euskal Herriko aizkolari gazteen txapelketa.

17:15, Afizionatuen pelota partidua.

*Izenemateak alde aurretik: www.sagardoarenlurraldea.eus,
info@sagardoarenlurraldea.eus, edo 943 55 05 75

[Gizartea](#)

Erantzun ▼



Ikusienak



[«Ordulari gabe bizitzea izugarrizko luxua da»](#)

Kronika - Erredakzioa
urr 29, 00:00 [Hernani](#)



[Odola emateko fideltasunari esker ona, 22 hernaniarri](#)

Kronika - Erredakzioa
urr 29, 00:00 [Hernani](#)



[Sei hernaniarrek podiumera igotzea lortu dute Ipar Martxan](#)

Kronika - Erredakzioa
urr 29, 00:00 [Hernani](#)



[Laguardian kantari eta Bastidan bisitari, asteburu berezian](#)

Kronika - Erredakzioa
urr 30, 00:00 [Hernani](#)



[Hernaniko senior taldeak Udapa Lankide, Euskadiko txapeldun ordea gainditu du Gasteizen](#)

Kronika - Erredakzioa
urr 29, 00:00 [Hernani](#)



[Hirugarren Senper, Leyre Trailen](#)

Kronika - Erredakzioa
urr 29, 00:00 [Hernani](#)

Kronika.eus

Dobera Euskara Elkarte

Larramendi kalea 11, Hernani

Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · [kronika\[ABILDUA\]@kronika.eus](mailto:kronika[ABILDUA]@kronika.eus)



Codesyntaxek garatua

[HONI BURUZ](#)[LEGE OHARRA](#)[PUBLIZITATEA](#)[ARAUAK](#)[HARREMANETARAKO](#)[RSS](#)

Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#) [AIKOR](#) [ANBOTO](#) [ATARIA](#) [BALEIKE](#) [AIURRI](#) [ERRAN](#) [EUSKALERRIA IRRATIA](#) [GOIENA](#) [GUAIXE](#) [HIRUKA](#)
[KARKARA](#) [MAXIXATZEN](#) [PLAENTXIA](#) [ALEA](#) [28 KANALA](#) [ANTXETA](#) [BARREN](#) [ERLO TELEBISTA](#) [GEURIA](#) [GOIERRI TELEBISTA](#)
[KRONIKA](#) [MAILOPE](#) [NOAUA](#) [DEUSTUALDEA PREST](#) [TXINTXARRI](#) [URIOLA](#) [UZTARRIA](#) [AMEZTI](#) [OIZMENDI TELEBISTA](#)

[Gurean](#) [Plazanbazan](#) [Itap](#)[Tokikom publizitatea](#)